

KONTROL MOZIOA

ELKARTEEK UDALARI EGITEN DIZKIOTEN LOKAL ESKAEREN KUDEAKETA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko martxoan Pertsonentzako Zerbitzu Batzordearen bileran aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal baliabideen eraginkortasuna bermatzeko eta elkarteen ekintza indartzeko, 2015eko maiatzaren 5eko Tokiko Gobernu Batzordean, Udal Lokalak Lagatzeko Udal Batzorde Teknikoa eratzea erabaki zen.

Agintaldi berria hasi zenetik, Udal Lokalak Lagatzeko Udal Batzorde Teknikoaren berri ez dugu izan, eta 2015eko irailetik ez dira udal lokalak eragileen erabilerarako bideratu.

2016an eta 2017an eragile eta elkarte asko izan dira lokal baten beharra adierazi dutenak. Behar hori ikusita, sarritan galdetu dugu gaiaren inguruan eta azkenekoz, 2017ko urrian ordezkariek hutsik dauden lokalen zerrenda egina dagoela, baina irizpideak finkatzea falta zela erantzun zигun.

2018ko martxoko batzordeetan, aldiz, Udaleko lokalak lagatzeko irizpideak finkatuta daudela eta orain arte zehaztutakoen oso antzera izango direla adierazi zigun. Lokalen egoera, diagnostikoa eta txostenaz, aldiz, informazio gehiegirik ez zitzaigun eman. Bai, ordea, uda aurretik zenbait udal lokal hiriko eragileei lagatzeko proposamena nahiko zehaztua dagoela aurreratu zitzaigun.

Udal lokalen egoeraren inguruko txostena ezagutzen ez dugulako eta elkarteen eskaerak pilatzen ari direlako, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bi hilabeteko epean parteka ditzala udal taldeekin udal lokalen egoeraren inguruko diagnostikoa, txostena eta udal lokalen lagapenak kudeatzeko proposamena.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia